

On the (ir)rationality of political violence. Helburu politikoak erdiesteko biolentzia erabili izan dutenen arrazionaltasunean sakonduz

Tesiaren egilea: Mikel Saratxo Moro

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

Doktorego-programa: Gizartea, Politika eta Kultura

Jakintza-arloa: Gizarte Zientziak

Tesi-zuzendaria: Julen Zabalo Bilbao eta Daniele Conversi

Tesiaren laburpena:

Tesi honen helburu nagusia izan da biolentzia politikoak erabili izan dutenen arrazionaltasun indibiduala eta kolektiboa azaltzea. Tesia lau kapituluatan banatuta dago.

Lehen kapituluatan, biolentzia politikoaren kontzeptualizazioari buruzko azterketa teorikoa egin dugu. Ondoren, biolentzia politikoak erabiltzeak izan dezakeen arrazionaltasunaz hausnartu dugu, bai ikuspegi kolektibotik eta bai ikuspegi indibidualetik ere. Era berean, gogoeta egin dugu biolentzia erabiltzeko orduan giza emozioek pertsonen arrazionaltasun indibidualean duten eraginari buruz.

Bigarren kapituluatan, tesian erabili dugun metodologia aurkeztu dugu.

Hirugarren kapituluatan, biolentziaren erabileraren arrazionaltasun kolektiboaren azterketa egin dugu. Aukeratu dugun kasu-ikasketa ETArena izan da. Hirugarren kapitulu hau lau zatitan banatu dugu. Lehenengoan, ETaren sorreran eragina izan zuten faktoreak aztertu dira eta erakundearen barruan biolentziaren inguruan egindako teorizazioetan zentratu gara. Bigarren zatian, ETak frankismo-garaian erabili zuen estrategia insurrekzionala aztertu dugu. AMIA analisiaren bidez, ETak estrategia hura aukeratzeko izan ziren faktore nagusiak identifikatzen saiatu gara. Ondoren, joko-teoriaren logikari jarraituz, frankismo-garaiko ETaren eredu estrategikoa higatze-gerraren eredu gisa aurkeztu dugu.

Hirugarren zatian, frankismoaren amaieratik 2007ra arte ETak garatutako estrategiak aztertu ditugu. Hasteko, estrategia-aldaketarako faktore eragingarrienak zein izan ziren islatzeko, beste AMIA bat erabili dugu. Halaber, bigarren zati honetan aztertu ditugu garai historiko horretan ETak erabilitako bi estrategien (negoiazioa eta nazio-frontea) garapenaren faktoreak batetik, eta bestetik ondorengo kolapsorako faktoreak.

Laugarren zatian, 2007-2011 aldian jarri dugu arreta. AMIA azterketa egin dugu, ikuspegi estrategiko batetik azaltzeko ETAre erabakia bere jarduera armatua bukatzeko.

Laugarren kapituluan, erakunde armatuetako kideek jarraitutako arrazionaltasun indibidualen prozesua aztertu dugu. Kapitulu honetan, ETA eta IRA erakunde armatuetako militante ohien kasuen arteko analisi konparatua egin dugu. Sakoneko elkarrizketen teknika erabili dugu.

Kapitulua hiru zatitan banatu dugu. Lehenengoan, elkarrizketatuek erakunde armatu batean sartzeko izan zituzten motibazioetan zentratu gara. Bigarrean, elkarrizketatuek biolentzia politikoaren eraginkortasunari, zilegitasunari zein haien erakundeen jarduera armatuaren amaierari buruz egindako hausnarketak jaso ditugu. Hausnarketa horietan izandako garapenaz eta emozioek hausnarketa haietan izan dezaketen eraginaz ere galdetu diegu. Hirugarrenean, elkarrizketatuek gaur egun borroka armatuaren erabilerari buruz duten iritzia jaso dugu, eta baita etorkizunari buruz duten ikuspegia ere.

Azkenik, tesian zehar egin ditugun hausnarketak eta ondorioak laburbildu ditugu azken gogoetan.